


geometria bezatzen
pitagora ´s nightmare


apirila | maiatza
apirila | maiatza

87

the balde



0€



87



Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu / Imaginative, provocative and interesting works? send

the balde

antsoain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

www.thebalde.net

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

argitaratzailea / publisher: eragin.com - azpikari sl

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

zuzendari komertziala & publizitatea / comercial director & publicity:

iñigo martinez

publi@thebalde.net

+34 686 485 980

diseinua / design: martin etxauri, ekaitz auzmendi, eneko etxeandia

itzulpenak / translations: 11itzulpen, smiley

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, david zapirain,

ismael iglesias, myriam gartzia, xabier gantzarain, byg, uxeta labrit, agurtzane ortiz

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: ismael iglesias, imanol amas,

mikel godoy, son aoujil, oier ituarte, the balde crew


azaleko irudia / cover image: byg

aurkibidea / summary: otomotake

inprimategia / printed at: gráficas alzate

lege gordailua / legal: na-3244/01

the baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

them to: info@thebalde.net



giza eskubideen jaialdia

Donostiako Giza Eskubideen Jaialdia honez gero hiriko klasikoetako bat bihurtu da. Urtero, giza eskubideen gaiari modu eta ertz ezberdinetatik hurbiltzeko aukera ematen diguten filmak proiektatuz, hausnarketarako tresnak eskuratzen dizkigun ekimena da. Apirilaren 15etik 22ra.

human rights festival

The Donostia Human Rights Festival has already become a classic of its kind. It's an initiative which projects films about human rights from different places around the world, which gives us tools for our reflections. 15th to 22nd April.

cineyderechoshumanos.com/



ZU HOR
TA NI HEMEN

artista berriak

Koldo Mitxelena Kulturguneko klasikoen artean klasikoena. Urtero, artista berrien lanak ikusgai jartzen dituzte KMko areto nagusian. Egungo izen ezagunetako askok egitasmo honetan ere dute beren izena izkiriatuta. Jarduera eta jarrera ezberdineko artista berri horien erakusketak aukera ematen digu etorkizuneko artisten lehen urratsak ezagutzeko..

new artists

winning new artist's works are put on display in the main hall at KM. Many of the currently best-known artist where selected in previous editions. This exhibition of new artists' activities and tendencies gives us the chance to see the first steps of the artists of the future.



mentalgassi

Berlingo Mentalgassi kolektiboak Donostia bisitatuko du Hormek Diote proiektuaren barnean. Kale-artearen modu berezi eta bereizgarrian ulertzen duen kolektiboa da. Alemanieraz gassi esaten zaio zakurra pasioan ateratzean ematen den bueltatxoari. Berlindar hauek garuna ateratzen dute pasioan beren proiektu bakoitzarekin.

mentalgassi

Berlin collective Mentalgassi is going to visit Donostia as part of the Hormek Diote project. It's a collective which understands street art in a particular, distinctive way. In German, "gassi" means taking a dog for a walk. These Berliners take the mind for a walk in each of their projects.





Diego Matxinbarrena

Erakusketa / Exposición

2016ko apirilaren 14tik maiatzaren 21era
Del 14 de abril de al 21 de mayo de 2016

Ordutegia / Horario

Asteartetik larunbatera / De martes a sábado
11.00-14.00 / 16.00-20.00

Jai egunak izan ezik / Excepto festivos



KOZDIO MITXELENA Kulturama, Erakunde Auzoa
Urdaneta kalea 9, 20006 Donostia-San Sebastián
94312001, programazio@kozdioa.eus
knic@kozdioa.eus

euskaratik ingelesera,
ingelesetik euskarara

ZUZEN

Itzulpen eta zuzenketa
zerbitzu profesionala

GAZTELANIA | EUSKARA

INGELES | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen

www.11itzulpen.eus

KEEP AN EYE ON...



tyf

Ez fikziozko zinema garaikidearen lurraldea eta mugak esploratzen dituen egitasmoak proiektu eta proposamen berriak eskainiko dizkigu aurten ere. Ikus-entzunezko dokumental alorrean zeresana eta zer erakutsia duten egileak bilduko dira Bilbon ekainaren 6tik 10era.

tyf

This project, which explores the boundaries and territory of non-fiction contemporary cinema, offers us new projects and proposals this year too. Creators of audio-visual documentaries, who will give us things to talk about and show us things, will be meeting in Bilbao from 6th to 10th June.

territoriosyfronteras.com



expogrow 2016

5. ediziora iritsiko da aurten Expogrow, haseratik, kalamu azoka bat baino gehiago izan dena. Aurtengo edizioa irailaren 16tik 18ra bitarte ospatuko da eta azoka eremua zabaltzearekin batera, profesional eta emanaldi ezberdinak ere ugarituko dira. Musikari dagokionez, lehen konfirmazioa, eta ez da halamodukoa. JoeyStarr handiak eta Nathy rapero frantziarrak abiatu duten proiektuaren aurkezpena: Caribbean Dandee.

expogrow 2016

Expogrow, the cannabis fair that is much more than a cannabis fair, reaches its fifth edition in 2016. From the 16th to 18th of September and with extended space and more professionals than previous editions, Expogrow is preparing new activities. The first music confirmation is already an upper cut! The great JoeyStarr and French rapper Nathy will be in Expogrow presenting the project they have done together: Caribbean Dandee.

expogrow.net



usopop

Proposamen moderno eta berritzaileak biltzen ditu urtero-urtero Usopop jaialdiak. Programa osoa ez da oraindik zabaldu baina adi egon, Drame, Amorante eta Neguaren kontzertuak dituen jaialdiak merezi du eta.

usopop

Usopop festival brings together modern, innovative proposals every year. The whole programme has yet to be announced, but it's well worth going to the festival that programs Drame, Amorante and Negua among others .

usopop.com



Eskuratu Entzun! liburu berria... ...eta eraman doan 18 kantuko CD-bilduma!



Entzun! bilduma 2015

LA BASU Trakamatraka • ZZIO Hotza • ANESTESIA Hildakoen bisita • ETEN MakinATXo bat gorpuzki • ENKORE Bihotz ezkutua • LARREGI Zuloan • MCONAK Hitz gordinak • PIZTIAK Bixitxi Marabilli Re • ZURA Paris • JP LOHIAN & KLONEN KLANA Hiruki beltza • HAN Poesia • ELORTEGI ANAYAK Agirretarren nagusia • LARRY BIRD Inoiz • JUPITER JON Gangsterrak operara doaz • ESTANKONA Ostargia • IZAKI GARDENAK Hibernazioa • ANARI Nola galdu • MIKEL URAKEN Grina oskolduna

Harpidetu eta gainkosterik gabe etxean jaso. Idatziguzu entzun@entzun.com-era



Eta gainera:

Entzun 2008-2013 Kutxa!

- 5 liburu + 5 CD
- 740 orri musikaz gainezka
- Euskal Herriko 85 talderen 90 kanta!!!
- 150 aleko tirada mugatua



sator alai

Izugarri gustatzen zaigu Donostiako metroaren aurkako kolektiboaren logoa. "Topoa" duen hiriak ez du metrorik behar. Donostia New York dela uste duten horiek ez al dira jabetzen herrialde aurreratuetan gastu sozialak lehentasuna duela obra publiko erraldoien gainetik? Zein da eredia, Suedia ala Dubai? Sator batek ere ikusiko luke...

the happy mole

We love the anti-Donostia Metro collective's logo. A city with a happy "mole" has no need for a metro. Don't those people who think that Donostia is New York realise that social spending takes priority over giant public works in advanced countries? What's their model, Sweden or Dubai? If a mole were to see it...

satorralaia.wordpress.com



lupa

Dokumentala modan dagoela esaten duenik bada. Gure ustez, gertatzen ari dena da azken urteotan ikus-entzunezkoetan egiten ari diren gauzarik interesgarrienak alor horretan izaten ari direla. Eta horren lekuko, Lupa jaialdia. Gune aproposa da dokumentalak eta prozesuan dauden lanak ezagutzeko, bai eta egileekin beren proiektuez hitz egiteko eta iritziak trukatzeko ere. Donostian, maiatzaren 5etik 8ra.

lupa

Some people say documentary is on fire. We think what they're doing is one of the most interesting things in the audiovisual field over recent years. Lupa (magnifying glass) festival is a witness to that. A chance to see documentaries and work in progress. And a great place to talk with the creators of different projects. Donostia, 5th to 8th May.

lupadoc.org



beecrib

Hiri-erletegiak ugaritzen ari dira. Oraindik legedi aldetik gorabeherak sortzen dituen jarduera bada ere, hainbat hiritan erletegi-sare interesgarriak sortu dira. Hementxe, zuk zurean erleentzako etxolatzoa egiteko aukera. Erraz egitekoa da eta diseinuaren deskarga librea eskaintzen dute.

beecrib

There are more and more urban beehives. In spite of the obstacles which the law has set up, there are interesting beehive webs in several cities. Right here you can put up sheds for bees. You can download instructions for making them easily and designs for free.

cargocollective.com/designislikethis/The-BeeCrib

BEEES, MOLES
AND OTHER ANIMALS



literaturia

Literaturaren herrialde nomadak Zarautzen jarriko du aurten ere kanpamentua, maiatzaren 19tik 22ra. Aurtengo gaia: larrua. Beraz, letren ijituok, badakizue non eta noiz duzuen zita. Urtero lez, ez da (b)ardorik faltako.

literaturia

There are more and more urban beehives. In spite of the obstacles which the law has set up, there are interesting beehive webs in several cities. This editions theme: skin/fur/sex. Right here you can put up sheds for bees. You can download instructions for making them easily and designs for free.


literaturia.eus

tamainak inporta du

Illma Gorek egin duen Donald Trump-en marrazkia ikusgai dago oraindik ere Facebook-eko bere orrian. Donald Trump-en lege-taldearen erasoei eta Facebooketik kanporatzeko mehatxuei. Honela erantzun die: "Ez dut uste zure genitalak definitzen duenik ez zure sexua, ez zure boterea edo estatusa; egundoko ergela izan zaitezke, zure galtzontzilotan daukazuna daukazula.

size does matter

Illma Gore's depiction of Donald Trump with a very small penis is still on her Facebook page the artist continues to face numerous threats of suspension from Facebook as well as intimidation from Trump's legal team. Of the image, Gore has stated: "I do not believe your genitals define your gender, power, or status. Basically, you can be a massive prick despite what is in your pants."



TROMPATUTA,
TREMPATUTA EDO
TRUMPATUTA?

euskaratik ingelesera,
ingelesetik euskarara

ZUZEN

Itzulpen eta zuzenketa
zerbitzu profesionala

GAZTELANIA | EUSKARA
INGELES | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.eus

gozatu 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.


Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



kale borrokalaria street-fighter


art and words by / artea eta hitzak: ismael iglesias

Badira sekula gauzatzen ez dituzun ideiak, pentsamenduak eta akzioak. Eta arrazoia jakin gabe, egingo ez dituzun gauzen kaxoian amaitzen dute. Orain kontatu behar dizuedan istorio hau eguneroko eginkizun bihurtu zait "ley mordaza" delakoa sortu zenetik.

15 bat urte daramat Bilboko San Frantzisko kale mitikoan bizitzen, kulturalki eta gizarte mailan, hiriko bazterrik anitzena eta aberatsena, eta aldi berean bazterrik umilena eta pobreena, alokairu erdi merkeen erreinua. Estudiotik nire etxera egiten nuen bidean, guztientzat komuna den elementu baten presentzia detektatu nuen: koltxoia.

There are some ideas which never get done, thoughts and actions and don't say why but they end up in the drawer for things we're never going to do. The story I'm going to tell you now has become a daily occurrence for me since the Spanish "gag law" was passed.

I've lived in Bilbao's mythical San Francisco Street for the last fifteen years. In cultural and social terms, it's the most varied, interesting part of the city and, at the same time, a marginalised area with the cheapest rents. On my walk from home to my studio, I saw something which we all had in common: mattresses.



Euskarri, pareta, iragarki ohola, egunkari, mihise, hasperen multzo, malko edukiontzi, usain eta kiratsen bilgune eta abar... Horrela ikusten nituen nik. Lege zentzugabea azaldu zenean, ezer ez egitea zapalketa onartzea zela pentsatu nuen, eta ideiak elkarri lotuz, "euskarri" horiek mezu anbiguoak bidaltzeko nola erabili asmatzen hasi nintzen. Jabetzen naiz ez dutela denbora gehiegi irauten kalean, eta, horregatik, argazkia atera eta akzio iragankorraren dokumentua gordetzen dut, zeinak zentzu guztia hartzen duen bilduma guztia deskubritzen duzunean.

Backings, walls, advert boards, newspapers, sheets, bunches of sighs, recipients for tears, storerooms for foul smells and so... that's what I used to see.

When that senseless law came out, I thought it was a step towards accepting not doing anything and, tying threads together, I started coming up with ways to use those backings to send ambiguous messages. I realised that they aren't very long in the street and, because of that, I take photos of them and keep those lasting documents, which really make sense when you come across the whole collection.



Testu gehienak RRV delakoaren taldeek idatzitako kantuetatik atera dituzte; badago, halaber, film, telesail, liburu eta beste testu batzuen eraginik ere: Eskorbuto, Cicatriz, MCD, RIP, Doctor Deseo, El Columpio Asesino...

I've taken almost all the texts from songs by a group called RRV, although films, tv shows, books and other types of texts are an influence too: Eskorbuto, Cicatriz, MCD, RIP and so on, and Doctor Deseo and El Columpio Asesino too.



Gaztelera, euskaraz eta ingelesez daude idatzita, baina azken hori erabiltzeari utzi nion emakume ijito jator batek "ay payooooo que no entiendo nada, explicamelo!" esan zidanean. Orduan gaztelera jo nuen. Rosa fuchsia aukeratu nuen hankartetik ateratzen zaidalako, eta, modu horretan, zabor garbitzaileek, nire etsai akzidentalek, badakite nor naizen; haiek beren lana egiten dute eta ni nirea egiten saiatzen naiz.

They're written in Spanish, Basque and English, although I stopped using the latter when a friendly Gypsy woman told me that she didn't understand a word of it. So I started using just Spanish.

I chose fuchsia pink because I wanted to and, in that way, rubbish collectors, my accidental enemies, know who I am, they do their work and I try to do mine.



Aukeratutako esaldiaren anbiguitateak irakurketa bat baino gehiago egiteko aukera ematen du batzuetan, baina hau guztia egiteko dudan beharra eta adrenalina-maila kontrolaezinak dira. Batzuetan etxetik ateratzen naiz beste koltxoi bat topatzeko gogoz, eta bertan, gau osoan bueltaka izan dudan esaldi madarikatu hori espraiaz tatuatzeko itxaropenaz.

The ambiguity of the sentences chosen sometimes means that there are different possible interpretations, but the need to do all of this and the uncontrollable adrenaline level when I leave home hoping to find another mattress and right there, using my spray gun, tattoo on it the damned sentence I've spent the whole night thinking up.

SI NO TE GUSTA, TE JODES
QUEJARSE Y NO HACER NADA AMAR LA ESTUPIDEZ
SABES BIEN QUE AQUI PUEDES MORIR






no comment

donostia - argazkia
photo by: javi arcinboldo agirre






To Pimp a Butterfly(2015) erraldoia gainera kendu ezinik gabiltzala Kendrick Lamarrek ezustean disko berria argitaratu du. Deskarteek osatutako lan honetan jazz, hip-hop, sintetizadore eta soul hipnotikoa bildu ditu. Lamarrek bizi duen sormen momentu erraldoia baieztatzeaz gain azkeneko urteetan ezagutu dugun rap abeslari onenaren aurrean gaudela erakusten digun diskoa.

We can't stop listening to Kendrick Lamar's *To Pimp a Butterfly*. This work is created with works left ahead in previous records. Jazz, hip-hop, synthesizers and hipnotic soul, show us that Lamar is in his best. He is one of the best rap singers of the last years.



Kendrick Lamar
Untitled unmastered
Aftermath / Interscope



Triangulo de Amor Bizarro
Salve discordia
Mushroom Pillow

Zaila da Triangulo de Amor Bizarrok bere diskoetan biltzen duen soinu-atmosferatik ihes egitea. Distorsioarekin hitzarmena duen laukote galiziarrek argitaratzen duen disko bakoitzeko hazi egiten dela berretsi du. *Baile Sumaria* kantuan dantzalekura gerturatzen badira ere, astinduko zaituzten gitarra kapez beteta dator diskoa.

It's hard to drag yourself away from the atmospheric sounds Triangulo de Amor Bizarro create on their records. This distortion-loving 4 piece Galician band prove once again that they grow with every new release. While the *Baile Sumaria* is heading for dancefloor territory, this album is chocobloc with big guitar riffs.

Jarraitzaile zorrotzenak hasebeteko ez baditu ere, The Catastrophic diskoak Tortoise gehiago ezaguzeko balio digu. Oraingoan, ahotsak sartzen ausartu da talde instrumentala. Horretarako, bi gonbidatu bereziren laguntza izan dute: Georgia Hubley (Yo La Tengo) entzun dezakegu *Yonder Blue* balada zoragarrian, eta Todd Rittman (U.S. Maple) *Rock on* indartsuan.

While it won't satisfy their most ardent fans, *The Catastrophic* does provide us with a good opportunity to get to know Tortoise a little more. This time round, the instrumentalist band have some singing going on. They have singers Georgia Hubley (Yo La Tengo) on the wonderful ballad *Yonder Blue* and Todd Rittman (U.S. Maple) on the thumping *Rock on*.



Tortoise
The Catastrophist
Thrill Jockey



Bombino
Azel
Patisan records

Dirty Projectors taldeko Dave Longstreth arduratu da Niger-eko musikariaren disko berria ekoizteaz. Aurretik, Black Keys taldeko Dan Auerbach-ekin egin zuen lan. Desertuko rock hipnotikoarekin jarraitzen du hemen, eta, orainoan, gitarra doinuei ahotsaren jokoak batu dizkie, Mdou Moctar-ek egiten duen bezala. Trance-ra eramango gaitu *Timtar* abestiarekin.

Dirty Projectors' Dave Longstreth was in charge of these musicians from Niger. They had previously worked with Dan Auerbach from the Black Keys. The group still ply their hypnotic desert rock on this disc, and this time round they have added vocals to the guitars, a bit like Mdou Moctar does. Songs like *Timtar* will leave you in a trance.

Azken aldian gure inguruan sortu diren talde dotorenetakoa da Rural Zombies. Juliaren ahotsak gidatuta, elektronika, pop eta rock doinuak nahasteko modu sofistikatua erakusten du. Foals taldea ekartzen digu gogora eta *Fall* eta *Golden* abestietan puntu gorenera iristen badira ere, merezi du diskoa osorik entzuteak.

Rural Zombies are one of the most elegant local bands to have appeared in a long time. They are sophisticated in how they mix electronica, pop and rock, all driven nicely along by Julia's voice. They bring the Foals to mind and on songs like *Fall* and *Golden* the band really hit their stride. A record that should be listened to in its entirety.



Rural Zombies
Bat
Warner Music / InSamuel Records



Amorante
Amorante
Autoekoizpena

Azkenaldian entzun dugun disko bereziaren argitaratu du Amorantek. Bost kantuk osatutako diskoa da, eta, guztien artean, aparteko mikro-mundua osatzen dute. *Dorre baten gordetakoak* abestiko giro akustiko eta dramatikoek harrapatzen bazaituzte, itxaron *Dogma* unki-garrira heldu arte. Lehen minututik harrapatuko zaituen lana. Berezia eta handia.

Amorante have just come up with one of the most special records we have heard. There are five songs on the album and they all come together to create some kind of micro-world. If the song *Dorre baten gordetakoak* and its dramatic acoustic atmosphere catches your fancy, wait till you hear the moving *Dogma*. A record that will envelop you from the very start. Special and great.



belako, kolpe perfektua

Bertoko musika zaleontzat, Belako gure bale zuria da. Musikarientzat ere bai. Denek nahi dute zerbait Belakorekin. Edo denek espero dute zerbait Belakorengandik. Eta erraza ez den arren, presio horren aurrean fidel eutsi diote beren izaerari. Ez dira erosotasunean erori eta, oso gazte izanik ere, argi dute zer den musikaren mundua: kontzertu sorpresak eskaintzen dituzte, eszenatokian inork baino hobeto pasatzen dute, eta sormen lan etengabean murgilduta daude.

Hamen estudioko laugarren diskoan, bilatzen diharduen soinutik gero eta gertuago dagoela erakutsi du Belakok. Talde askok beren ibilbidea soinu sofistikatuagoetara gidatzen badute, Mungiako taldeak bere bideari jarraitu dio eta lortu du zuzenean transmititzen duen freskotasuna eta indarra islatzea.

Kolpe perfektua da *Hamen*. Gero eta urrutiago bizi dugun 90eko hamarkadako underground eszenaren erreferente berri bilakatu da diskoa. Horrekin batera, intentzio bat erakusten duen taldea da: ondo pasatzeko lau lagunek sortu duten banda. Entzuleari lehen kolpetik kutsatzen diote sentsazio hori, bai estudioan, bai eta eszenatokian ere.

Silent Alarm abestiko baxuaren gordintasunak zapaldu egiten du egungo musikaren eszena betetzen duten aurrefabrikatutako taldeen nortasun eza. Kolpe bera transmititzen du *Off your shoes* kantuak; entzulea, bapatean, espero ez dituen rock giro indartsuetan murgilduta aurkitzen da. Ez dira zuzenekoetan erraz funtzionatzen duten kantuak, baina, kasu honetan, badute eraginik eta aurrekari biribilak dira elektronikara gerturatzen diren *Track sei* bezalako abestientzat. Dinamika bikaina lortu dute estilo nahasketa horretan.

Sasoi onean dago Belako, eta *Hegodun baleak* abestiak agerian uzten du hori. Dantzalekurako sortutako *Sinnerman*-en bertsioa ere grabatu dute, melodia majikoak sortzeko ahalmena dutela erakutsiz.

Seguru etortzeko dagoena hobea dela. Bitartean, nostalgiarik ez, just Belako.





belako, the perfect hit

For us local music fans, Belako's our white whale. For musicians, too. Everyone wants to have something to do with Belako. Or everyone expects something from Belako. But, even though it's not easy, they've remained loyal to their own personality in spite of that pressure. They haven't taken the easy route and, even being so young, they know what the music world is: they give surprise concerts, have a better time than anybody else on stage, and are always deep in creative work.

On their fourth studio album, *Hamen*, Belako have shown that they're getting closer and closer to the sound they're looking for. While many groups guide their career towards having a more sophisticated sound, this group from Mungia has kept on going along its own path, giving freshness and strength when they play live.

Hamen is the perfect hit. The disk has become a new reference for the increasingly far-off 90's underground scene we lived through. Along with that, the group have shown an aim of theirs: the four friends founded the group to have a good time together. Listeners pick up on that from the first hit, whether it's in the studio or on stage.

The crude bass on *Silent Alarm* treads all over the current music scene's prefabricated lack of personality. *Off your shoes* gives off the same idea and the listener suddenly finds him or herself surrounded by unexpectedly powerful rock. They're songs which work well live but, in this case, they have their influences and songs like *Track sei*, which get close to electronic music, are great precedents. They've put together a great dynamic in that mix.

Belako's at a good moment and songs like *Hegodun baleak* make that clear. They've also shown that they have a talent for magical melodies by recording a dance-version of *Sinnerman*.

The next one's bound to be even better. No nostalgia. Till then: just Belako.

April 9, 1940.

S. N. GOLDMAN

FOLDING BASKET CARRIAGE FOR SELF-SERVICE STORES

Filed March 14, 1938

2,196,914

3 Sheets - Sheet 3

kapitalismoaren eraikuntza: supermerkatu karroaren parabola

Ez diegu ematen merezi duten balioa. Aintzat ez hartzeaz gain, zerbitzua eta zamalana egin ostean, berriro ere bere anai-arreba bikiekin kateatzen ditugu, garai batean afrikar esklabuak katetatzen genituen moduan. Tarteka, herriko festetan edo inhaulerietan ibilgailu ergelena bat eraikitzeko, edo buelta eman eta barbakoa inprobisatu gisa erabiltzeko. Bortizkeriaz erabiltzen ditugu, axolagabe, ia ia mezipretxuz, jabetu gabe garai batean iraultza baten sinbolo izan zirela. Iraultza kapitalistaren sinbolo, hain zuzen ere.

super(market)man

Supermerkatu kontzeptuaren asmatzaile izan zen Sylvan Goldmani zor diogu hori guztia. Sylvanen Gurasoak Letoniatik AEBetara emigratu zuten. Sylvan 1898an jaio zen, eta, 12 urterekin, bere aitak lan egiten zuen janari denda laguntzen hasi zen. Lehen Mundu Gerran Frantzia jardun zuen janari probisioetan lanean. 1919an Texas-ko Breckenridgera itzuli zenean, argi zuen janari denda propioa jarriko zuela. Hala egin zuen, baina, eskualdean petrolioa agortu zenean, Californiara aldatu zen. 21 urte zituen eta bere ideia iraultzaileak martxan jartzeko prest zegoen.

Han asmatu zuen "self-service" kontzeptua. Ordura arte, supermerkatuetan bezeroak produktua eskatu eta dendariak eskuratzen zion. Dendari asko eta ezagutza zabalekoak behar ziren. Bai eta denbora ere. Self service sistemarekin, bezeroak berak eskuratzen zituen aurretik apaletan jarritako produktuak. Ondorioz, langile gutxiago behar ziren eta denbora laburragoan salmenta gehiago egiteko aukera zegoen.

1920an denda kontzeptua betirako aldatuko zen Goldmani esker. Oklahomako jaioterria itzuli, eta, epe laburrean, 55 self service denda ireki zituen. Hurrengo urteetan negozioa zabaltzen jarraitu zuen, harik eta 1929an bere konpainia saldu zuen arte. Herrialde osoa dardarka jarri zuen burtsa krisialdia gertatu baino hilabete batzuk lehenago. 1934an, dirutza baten jabe zela, Humpty-Dumpty janari katea erosi zuen. Honela esan zion Goldmanek erreportari bati: "janariaren gauzarik onena guztiak kontsumitzen dugula da, eta behin bakarrik, gainera". Hala ere, krisialdi garaiak ziren eta negozioak ez zuen itxura onik. Iraultza berri bati ekiteko unea zela pentsatu zuen Goldmanek.

saski-karrotxoa


Iraultza berri horretan, ezin ukatu zortea alde izan zuela. 1930eko hamarkadan janari kontsumoaren ohiturak aldatuko zituen beste elementu bat azaldu

zen: etxeko hozkailua. Hamarkadaren amaierarako estatubatuarren % 50ek hozkailua zuen etxean. Eta ez hori bakarrik, preserbatzaile berrien asmakuntzarekin, latetan zetorren janaria ugalduta egin zen. Goldmanek berehala ikusi zuen bi berrikuntza horien batuketarekin zer gertatzen zen: batetik, kontsumitzaileek janari gehiago eros zezaketen, eta, bestetik, janari horrek pisu gehiegi hartzen zuen garai hartako saskitxoetarako eta paperezko poltsetarako. Bere bulegoko gurgildun eserlekuan eserita zegoela etorri zitzaion ideia. Zer gertatuko litzateke supermerkatuan banatzen zuten saski hori gurgildun egitura batean kokatuko balute?

Idea itzela zen. Bezeroek produktu gehiago har zezaketen eta inolako arazorik gabe garraiatu batetik bestera. Karrotxoak diseinatu, egin, eta supermerkatuko sarreretan utzi zituen, bere asmakizun berriaren arrakasta itzelaz harro. Baina bezeroei ez zitzaion ideia gustatu. Emakumeek ez zuten gustoko, haurrak eramateko karrotxoekin nahikoa zutelako. Gizonezkoentzat karrotxoa eramatea ez zen inondik inora maskulinoa. Baina Goldman, bere ideiarekin balioaz sinetsita (eta negozioarentzat ona zela jakinda) publizitate kanpainak antolatu zituen karrotxoaren erabilera sustatzeko. Aktoreak kontratatzea ere iritsi zen bere supermerkatuetan erosketak karrotxoekin egin zituzten. Eta apurka-apurka karrotxoak supermerkatuetako korridoreak menperatu zituen.

Karrotxoari esker, supermerkatuetako salmentak biderkatu egin ziren. Ikerketek diotenez, karroa betetzeko joera dugu supermerkatuetan erosten dugunok. Produktuak pilatzea eta metatzea gure DNA egongo balitz bezala. Badakite hori Goldmanen modukoek. Datu simple bat: azken 20 urteotan karroen tamaina bikoiztu egin da. Supermerkatuko karroaren asmatzailea, "amerikar ametsa"ren sinbolo, 1984an hil zen. Eta haren asmakizuna "erosketa" kontzeptuaren ikono bihurtu da (Interneten nabarmen).

Zein ederra den supermerkatu karroaren istorioa ezta? Zenbat adar ezberdin eta zein bitxia. Nork esango zigun autoa aparkaleku erraldoian utzita merkatalgunean bultzatzen dugun karroak halako garrantzia izan zezakeenik kontsumo ohituran. Arrakastaren sekretua: enpresari baten ideia argiak, kemena eta adorea. Gaiaren inguruan dokumentazio lana egin dugunean, hala ere, ez dugu inon topatu Goldmanen supermerkatuetako langileen lan baldintzen aipamenik, ez janari ekoizleekin eginiko tratuerik, ez eta salmenta prezio diferentziarik. Baina eh, zertarako? Halako huskeriek ez dezatela kapitalismoaren parabola eder hau zapuztu...



the construction of capitalism: the parable of the supermarket shopping trolley

We really do not give them the recognition they deserve. Not we when we unshackle them, nor when we once again chain them back to their twin brothers and sisters, as we did with the African slaves, having finished using them. As well as that, the odd time we find them requisitioned in village fiestas to be used as an unorthodox method of transport or to be turned over and used as a makeshift barbeque. We use them violently, without care, almost with disdain. Once they were the symbol of a revolution, the symbol of the capitalist revolution no less.

super(market)man

And we owe all of this to the man who came up with the concept of the supermarket: Sylvan Goldman. Sylvan's parents emigrated from Latvia to the USA. Sylvan was born there in 1898 and when he was 12, he started helping out in the food store where his father worked. During the First World War he was in France working on food provision for the troops. In 1919, when he returned to Breckenridge in Texas, he knew that he wanted to set up his own food shop. He did the very same, but when oil in the area ran out, he moved to California. He was 21 and ready to put his revolutionary idea into practice.

That's where he set his self-service model in motion. Until then, the customer asked for the goods and the shopkeeper fetched them for them. You needed a lot of shopkeepers who knew a lot about everything in the shop. And time. With the self-service system, the customers themselves gathered what they wanted from goods previously stacked on shelves. Consequently, there were less workers needed, and in a shorter amount of time, more goods could be sold. As Goldman said to a reporter: "Food is the best; everybody consumes it, and only once to beat." That said, it was a time of crisis, and the business looked very shaky. Goldman reckoned it was time for a new revolution.

the shopping trolley


And, truth be told, he also undeniably had luck on his side because in the 1930s a new element that would change food consumption habits appeared: the domestic fridge. By the end of the decade, 50% of American households had a fridge. Not only that, along with the fridge, new preservatives came along that enabled a large increase in the amount of tinned

foods available. Goldman quickly recognised the new situation brought about by joining these two new elements: on the one hand, consumers could buy more food, and on the other, these new foods were too heavy for the traditional baskets and paper bags. As he sat on his chair in his office, he hit upon the idea. What would happen if the baskets used in supermarkets until then were set atop wheels?

It was a magnificent idea. Clients could get more products and easily transport them around the store as they shopped. Having designed and built the trolleys, he placed them at the entrance to the supermarkets, proud as punch of his new invention. But shoppers didn't like the idea because the female shoppers had enough on the plates with hauling their baby pushchairs around. It wasn't very masculine for male shoppers to be seen pushing a trolley either. But Goldman, convinced his idea was good (and of course that it was good for business), set up an advertising campaign to promote the use of the trolleys. He even hired actors to do their shopping with the trolleys. And little by little, the aisles of the supermarkets began to be taken over by said goods transporters.

Thanks to these trolleys, supermarket sales multiplied. According to research, those who shop in supermarkets tend to fill trolleys when we shop, as if piling up shopping goods was engrained into our DNA. And those like Goldman know this. A simple fact: in the last 20 years, shopping trolleys have doubled in size. The creator of the supermarket trolley, symbol of the 'American dream', died in 1984. His invention has become an icon of the "shopping" concept (particularly on internet).

Isn't the history of the supermarket trolley beautiful? How many different ramifications and how unusual! Who would ever have said that the trolleys that we release once we have parked our cars in those massive car parks at those massive shopping centres would be so important in our shopping habits. The secret to its success, a clear idea and the unrelenting effort of a businessman. While we were researching this topic, we were unable to find out anything about the conditions Goldman's workers worked under, nor could we discover the differences in cost price paid to food producers and sale prices in the stores. But why would you want to do that? And spoil the beautiful parable of capitalism with all that nonsense.



Inventor





testua / text by: xabier gantzarain

arteak kale egiten duenean when art fails

Ezaguna egingo zaizue historia. 2010eko irailean bota zuten Banksyren pelikula, *Exit Through The Gift Shop*, Donostiako Zinemaldian, eta garaitsu hartan agertu zen irudi hau Parte Zaharreko bazter batean.

Marko huts bati begira dago gizon bat, bere buruari galdezka ari balitz bezala: zer da ikusten ari naizena? Matrioxka joko batean bezala, hemen ere irudian ikusten denak gero irudiarekin gertatu zenaren aurrekaria, zatia eta ernamuina dirudi.

Akordatuko zarete, ikuskizun negargarria izan zen inondik ere: Banksyrena zela, ez zela, berdin zitzaiola zeinek egina zen, kendu egin behar zela, gero ezetz, Udalak errespetatu egingo zuela Banksyrena ez izanda ere, "adierazpen kultural" bat zelako, jendeak gainean pintatu, azkenean ezabatu... Mundiala izan zen.

Baina ikuskizun penagarri horrek ondo ematen du gure neurria. Batez ere, gure gaitzak aletzen dituelako banan-banan. Eta gure gaitzatarik larriena salatzen duelako zuzen-zuzenean: izenarena, sinadurarena. Zer da bada Banksyren gainean miresten duguna?

Banksy egina bada artea da eta bestela ez?

Zer axola du artea izan ala ez?

Jon Alonsok Astrolabioa liburuan Witold Gombrowiczen Ferdyydurke nobelako zati bat itzuli zuen, eta nik zati horretatik zati batzuk aipatu nahi ditut.

"Lehenik eta behin, ondoko hitz honekikoak moztu itzazue erotik: Artea; baita beste honekikoak ere: artista. Ez zaitzete gehiago murgildu eternitatearen monotoniarekin errepikatzen dituzuen hitz horietan. Ez al da egia handiagoa izango norbera artista dela? Ez al da izango gizateriak Arte sortzen duela ez bakarrik paperaren edo oihalaren gainean, baizik eta eguneroko bizitzaren une orotan?"


Gelditu une batez, hartu galdera ezpain artean, egin zeure buruari, egin ahoz gora nahi baduzu, ez al da izango?

"Dontzeilak arrosa bat paratzen duenean, solas mamitsu batean txiste irrigarri bat isurtzen denean, norbaitek arrastiriari aitopanak egitean, horixe guztia Arte baizik ez da. Zertarako, orduan, banaketa izugarri hau: A, ni artista naiz, nik Arte sortzen dut. Ez al da komenigarriagoa beste hau esatea, soiltasunez: Ni, again, Arteaz kezkatzen naiz eta Arteaz jarduten dut bestek baino apurtxo bat gehiago."

Gorroto dut arte aditu gisa aurkezten nautenean. Lasaitzeko, beti akordatzen naiz esaldi zoragarri harekin: beti fida zaitzete aditu batez, salbu eta aditu den alor horretan.

Zerk egiten du gauza bat Arte, zerk egiten du Arte hori on? Zerk, nork?

"Eta bigarrenik, zergatik kultu hori, miresmen hori, "obrak" deitzen ditugun horietan adierazten den arte horren aurrean? Nondik atera duzue gizonak Arte obrak biziki miresten dituelako ideia inozo hori, Beethovenen sinfonia bat entzutean konortea galdu eta plazer-ikaraz hiltzen garelako hori? Sekula ez duzue pentsatu zein ezpuru, nahasi eta zorrozki heldugabea den kulturaren eremu hau, zuen fraseologia errazaren barruan zedarritu nahi duzuen? Behin eta berriz egiten duzuen



akatsa honako hau da, batez ere: pertsonaren eta Artearen arteko harremana emozio estetikoak baizik ez dela pentsatzea, uste izanez, gainera, harreman hori guztiz partikularra eta bakarkakoa dela, alegia, bakoitzak harreman hori erabateko bakardadean biziko balu bezala, beste gainerako gizakiengandik bereizirik. Baina, egia esan, harreman horren arragoan hainbat eta hainbat emozio desberdin nahasten dira, eta emozio horiek biderkatzen dira, hainbat eta hainbat pertsona desberdinek hartzen duelako parte, eta pertsona horiek elkarri eragiten diotelako eta elkar sujestionatzen dutelako, taldeko arima-egoerak sorraraziz.”

Lehenago entzun nuen emanaldi bat bakatu ostean Placido Domingori 80 minutuz jo ziola txalo publikoak. Artistek egoa, diote gero.

Irakurri ezazue liburu zorrotz bezain zoragarri hau: Txalorik ez, arren. Harkaitz Canorena.

Gustura jarraituko nuke hona Ferdydurkeren zatiak ekartzen, baina luzeegi aterako zait, eta moztera noa, nahi duenak badaki non aurkitu, laburpentxo bat aletuz:

- Ez al da egia handiagoa izango norbera artista dela? Ez al da izango gizateriak Artea sortzen duela ez bakarrik paperaren edo oihalaren gainean, baizik eta eguneroko bizitzaren une orotan?
- Nork esan lezake, edertasun horretan, zer den benetan eder, eta zer prozesu historiko-soziologiko baten emaitza?
- Horregatik gertatzen da, denek konortea galtzea koadro eder baten aurrean, baina inork ere ez koadro horren kopia baten aurrean.
- Gu, atsedetik gabe, etengabe, forma eta adierazpenaren bila ibiltzen gara.
- Forma zerbait bizi eta humanoa da, zerbait praktiko eta eguneroko, ez Artearen atributu jostagarri bat.
- Batek forma bat bilatzen duenean, bere burua gauzatzeko egiten du, ez inori lezioak emateko.
- Saia zaitzete formari aurka egiten, aska zaitzete formatik. Ez zaitzete identifika definitzen zaituenekin. (Arte aditua; beti fida zaitzete aditu batekin, salbu eta...)
- Guri dagokiguna betiereko heldugabetasuna da.

Bada beste liburu zoragarri bat, Parisen bizi naiz, Koldo Izagirrarena. Liburu horretako azken poemak hauxe du izenburua: Berlinean bizi naiz. Eta hauxe dio bertan:

*zoragarria da hiri hau
erraustegiko kea dator mulkotan leihora
nik burdineria dendetan bezala
atxikitzen du kopeta beiran
jazarra nondik helduko den atzeman ez dezagun
txirrina jotzen didate etxepekoek
agiriaren bat idatziko dugun kearen aurka
kalte handiak egin zizkiguten urbanistek orain hurrengoan
hiriko postal zaharrak oparitzen dizkit goikoak
harresiaren behealde osoa mezu likinez
utzi du garbi bere seme gazteak
koloretako lapitzak ekarri dizkioten ume
hemen ez daukat haserretzeko arazorik
baina non da tokio non da kopenhage non da
montevideo hemen non beirut non luanda
zer kosmopolitika da hau
umeon marrazki margodunetan bakarrik
izaten ahal da zuen hiria ezer*

Zenbatekoa da isuna Donostian horma bat baimenik gabe pintatzeagatik?

Zenbateko kartzelaldia bota ahal dizute kartel bat, pankarta bat jartzeagatik?

Orain pintadak, graffitiak eta pankartak museoetan eta arte zentroetan ikusten ditugu. Ez dute deus esaten, artea baitira, arte bihurtu baitira.

Arteak kale egiten duenean, inork arte gisa ikusten ez duenean, inork ez duenean errespetatu beharreko obra bat ikusten, beste zerbait bihurtzen da; ez da gorde beharreko artea, ez da laudatu beharrekoa, gizartearen parte da, eztabaidaren parte. Orduan funtzionatzen du ondoena.



This story will be familiar to you. They showed Banksy's film *Exit Through The Gift Shop* at the 2010 Donostia Film Festival, and just then this image appeared in the old part of town.

A man looking at an empty frame, as if asking himself: What am I looking at? Like a set of Matryoshka dolls, everything you see here is like a precedent, a part and an embryo of everything that is going to appear in the image.

As you'll remember, it was quite a lamentable spectacle. Was it Banksy's, wasn't it, it didn't matter who'd done it, it had to be removed, then it didn't, the city hall would keep it there even if it wasn't Banksy's because it was a cultural manifestation, people painted over it, then scrubbed it off... It was a complete event.

But that pitiful spectacle took our measure well. In fact, it separates our ills one by one. And it reports our worst ill quite exactly: names and signatures. What is it we admire about Banksy?

If Banksy did it it's art, otherwise it isn't?

What does it matter if it's art or not?

Jon Alonso has translated some passages from Witold Gombrowicz' *Ferdydurke* in his novel *Astrolabioa*, and I'd like to mention a few of those pieces.

"First of all, I'd like to pull these words up by their roots: Art; and also, artist. Don't you all get too wrapped up by those words which get repeated monotonously throughout eternity? Isn't it truer that everybody is an artist? Isn't it true that art is created not just on paper and canvas, but also in daily life in general?"

Stop for a moment, put that question between your lips, take them in, say them aloud if you want to, isn't that right?

"When the virgin puts the rose down, when a funny joke's told in the middle of a deep conversation, when somebody confessed things to the afternoon, that's all art, as simple as that. So why make this incredible separation? Oh, I'm an artist, I create art. Shouldn't it be said like this, for humility's sake? Perhaps I'm interested in art and I do a few more things in art than other people."

I hate it when they introduce me as an expert on art. To calm down, I always remember this sentence: You can always trust an expert except for in this area.

What is it that makes something art, what makes that art good? What, who?

"And, secondly, why that cult, that admiration, called art "works" when we're looking at it? Where have you all got that absurd idea from, that man admire art, faints when hearing a symphony by Beethoven and then we die of pleasure? Haven't you ever thought how impure, confused and severe this cultural area is, this thing you want to fence up in your limited phraseology? I've heard this mistake time and time again: thinking that the relationship between people and art is no more than an aesthetic emotion, believing, what's more, that emotion to be purely personal and individual, in other words, as if each of us lived in absolute solitude with that relationship, separated from all other humans. But, in fact, countless different emotions are mixed up in that relationship's crucible, because so many people take part in it, and those people influence each other and create a group soul."

Once I heard an audience clap Placido Domingo for 80 minutes after one of his performances. And they say artists have egos.

You should all read this wonderful book: *Txalorik ez, arren* ('No applause, please'). By Harkaitz Cano.

I'd happily bring up more quotes from *Ferdydurke*, but I'd go on too long and I'll keep it short, if you want them you know where to look, so here's a summary:

Isn't it truer that everybody is an artist? Isn't it true that art is created not just on paper and canvases, but also in daily life in general?"

- Who can say what, in that beauty, is really beautiful, and the result of what historical-sociological process?
- That's why they stand in front of beautiful paintings, faint in front of them, but never in front of copies of the same paintings.
- We keep on looking, ceaselessly, for forms and expression.
- Form is something alive and human, something practical and daily, not an amusing part of art.
- When we look for a form, it's to make ourselves come true, not to give anybody lessons.
- Try to oppose forms, set yourselves free of forms. Don't identify with what defines you (Experts in art: always trust an expert unless...)
- Eternal immaturity is our lot.

There is another wonderful book, *Parisen bizi naiz* ('I live in Paris'), written by Koldo Izagirre. The last poem in the book is titled *I live in Paris*. And this is what it says:

this city's wonderful




*the incinerator's smoke comes up to the windows in the block
like me at an ironmonger's
pressing my forehead to the glass
let's not find out where the attack will come from
the neighbours ring my bell
we're going to sign a document against the smoke
the town planners have done us a lot of harm this time
the upstairs neighbour gives me old postcards of the city
dirty messages all along the bottom of the wall
their young son's cleaned it up
they've brought the child a colour pencil
there's nothing for me to get angry about here
but where's tokyo where's copenhagen where's
montevideo here where beirut where luanda
this is so cosmopolitan
only in this child's coloured drawings
can your city be anything*

What's the fine for painting on a wall in Donostia without a permit?

For how long can they imprison you for putting up a poster?

Nowadays you can see graffiti and banners in museums and art centres. No-one says anything because they're art, they've become art.

When art's done in the street, when nobody sees it as art, when no-one sees it as a work of art which should be respected, it becomes something else: it isn't art which should be kept, it deserves no praise, it's part of society, part of the debate. That's when it works best.





diseinua, internet
eta argitarapenak


**Ikaragarri
gustatzen
zait the way
you talk
to me
maitia!**



**Iruñeko
Hizkuntza
Eskola
Ofiziala**

- | | | |
|-------------|--------------|-------------|
| • euskara | • alemana | • txinera |
| • ingelesa | • gaztelania | • japoniera |
| • frantsesa | • italiara | |

KONPAÑIA PLAZA Z/G - 31001
<http://eoiip.educacion.navarra.es/>
848 430 040



***Malmö* film eszenikoa estreinatu berri du Bilboko Khea Ziater antzerki taldeak. Antzezlanak bi laguneren arteko mendeku istorioa kontatzen du, Claudia eta Saga (Maria Urzelai eta Ainhoa Jauregi aktoreak), eta gorrotoa, drogak, odol isuriketa eta une zoroak ez dira falta film eszeniko honetan. Film eszenikoa, bi disziplina horiek, zinema eta antzerkia, nahasten direlako narrazioaren alde, Khea Ziater taldearen ohiko etiketa eta egiteko modua. *Malmö*ren zuzendaria den Alex Gerediagarekin elkartu gara, euskaraz gutxitan ikusiko dugun antzerki lanari buruz hitz egiteko.**

Zer da *Malmö*? Nola sortu da Khea Ziaterren film eszeniko berri hau?
Malmö euskaraz lan egiteko beharretik sortu dugu, erdara hutsez lan egiteak asko mugatzen zaituelako Euskal Herrian. Oraingoz, euskarazko bertsioari emango diogu lehentatsuna, eta datorren urrian erdaraz estreinatuko dugu.

Aurreko antzezlanetan ere egin izan dituzue bertsio biak, euskaraz eta gazteleraz.

Bai hala izan da, baina aurreko lana eta, egin dugun lehendabiziko film eszenikoa, *Not Never in Time*, erdara hutsez egin genuen. Arrate Etxebarria antzezlea ez da euskalduna, eta film eszenikoa euskaraz egiteak zekarren aktorea aldatzea eta filmaren lan guztia berriz ere grabatzea. Eta ez nuen kontua gehiegi derrigortu nahi.

Bilboko Arriaga antzokiak aspaldi eskatu zigan zerbait egitea Gelatxo programan erakusteko, eta lehen film eszenikoa euskaraz sortzeko behar horretatik sortu genuen *Malmö*.

Zergatik film eszenikoa? Zuek asmatutako etiketa da?

Gure asmoa, ikusentzuneko narratiba eta narratiba eszenikoa nahastea eta osatzea da, horrela, ikusleak narrazioa jarrai dezan pantailatik eszenara eta eszenatik pantailara. Kasu honetan, filmea ez da osagarri hutsa; filmeak eszenak kontatu ezin dezakeena kontatzen du, eta alderantziz. *Malmö* borroka baten istorioa da, eta halako talka bat

The Khea Ziater theatre group have just opened their cinematic theatre production *Malmö*. The play tells the story of Claudia and Saga (played by actors Maria Urzelai and Ainhoa Jauregi). It is one of revenge and there is no lack of hate, drugs, spilt blood and moments of madness throughout the play. Khea Ziater have once again brought together two disciplines, film and theatre, as only they know how to enhance the narrative of the story. We met up with Alex Gerediaga, director of *Malmö*, to talk about this play that we won't often get a chance to see in Basque.

What is *Malmö*? How did Khea Ziater's latest cinematic theatre play come about?

Malmö came from the need to work through the medium of Basque because if you only work in Spanish, you're very limited to what you can do in The Basque Country. This time round, we prioritised Basque and we'll tour the play in Spanish next October.

In previous productions you have also done two versions, one in Basque and the other in Spanish.

Yes, that's right. But our last play, our first cinematic theatre production, *Not Never in Time*, was only in Spanish because actor Arrate Etxebarria doesn't speak Basque, and had we done it in Basque, we would have had to change actors and filmed everything all over again. I really didn't want to force the whole thing too much.

The Arriaga Theatre in Bilbao came to us for the Gelatxo programme, and needing to write something in Basque for that was how *Malmö* came about.

Why cinematic theatre? Is the label yours?

Our idea is to mix and complement audio-visual narrative and stage narrative so that the spectator follows the story from the screen to the stage and back from the stage to the screen. In this case, the film is more than a simple complement, the film scenes tell us

Alex Gerediaga. Khea Ziater antzerki taldeko zuzendaria
"Publiko programatzaileek uste dutena baino azkarragoa da"



